b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
07/03/2022	MEE 8	BXPOR KIROL ZERBITZUAK, S.L	MASAJE ZERBITZUA (OTSAILAK 1-28)	4.338,80
28/02/2022	2022/K/18565	BXPOR KIROL ZERBITZUAK, S.L	GARBIKETA ZERBITZUA- OTSAILA 2022	11.233,33
28/02/2022	2021/K/18629	BXPOR KIROL ZERBITZUAK, S.L	HARRERA ZERBITZUA-OTSAILA 2022	6.842,40
28/02/2022	2022/K/18628	BXPOR KIROL ZERBITZUAK, S.L	ADMINISTRARITZA ZERBITZUA-OTSAILA 2022	5.360,00
28/02/2022	2022/K/18568	BXPOR KIROL ZERBITZUAK, S.L	MANTENU ZERBITZUA-OTSAILA 2022	10.720,00
28/02/2022	2022/K/18569	BXPOR KIROL ZERBITZUAK, S.L	SOROSPEN ZERBITZUA-OTSAILA 2022	11.589,56
01/03/2022	22FF093791	PHS SERKONTEN S.A.U.	KONTENEDORE HIGIENIKOAK-MARTXOA	53,67
03/03/2022	000036	AEFISPORT S.L. (LABORATORIO RIG)	ANALITIKAK: 2022-03-03	1.304,86
28/02/2022	77	ION GURRUCHAGA MUGICA	AITZURI FRONTOIKO GARBIKETA: OTSAILA 2022	1.080,53
				52.523,15

b.1)SARRERAK: Indarrean ez dauden kontratuak:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
03/03/2022	3D/22	IVAN ASEGINOLAZA AGIRRE	AITZURI PILOTALEKUKO TABERNAREN ALOKAIKUA: MARTXOA 2022	1.694,00

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, kiroldegiko zerbitzuaren kontratua. Kontratu honek lehenatasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Lehendakariak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

B22/0012 KIROL PATRONATUKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA

AURREKARIAK

2022ko martxoaren 21 ean kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit(3/2022)



Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
07/03/2022	MEE 8	BXPOR KIROL ZERBITZUAK, S.L	MASAJE ZERBITZUA (OTSAILAK 1-28)	4.338,80
28/02/2022	2022/K/18565	BXPOR KIROL ZERBITZUAK, S.L	GARBIKETA ZERBITZUA- OTSAILA 2022	11.233,33
28/02/2022	2021/K/18629	BXPOR KIROL ZERBITZUAK, S.L	HARRERA ZERBITZUA-OTSAILA 2022	6.842,40
28/02/2022	2022/K/18628	BXPOR KIROL ZERBITZUAK, S.L	ADMINISTRARITZA ZERBITZUA-OTSAILA 2022	5.360,00
28/02/2022	2022/K/18568	BXPOR KIROL ZERBITZUAK, S.L	MANTENU ZERBITZUA-OTSAILA 2022	10.720,00
28/02/2022	2022/K/18569	BXPOR KIROL ZERBITZUAK, S.L	SOROSPEN ZERBITZUA-OTSAILA 2022	11.589,56

01/03/2022	22FF093791	PHS SERKONTEN S.A.U.	KONTENEDORE HIGIENIKOAK-MARTXOA	53,67
03/03/2022	000036	AEFISPORT S.L. (LABORATORIO RIG)	ANALITIKAK: 2022-03-03	1.304,86
28/02/2022	77	ION GURRUCHAGA MUGICA	AITZURI FRONTOIKO GARBIKETA: OTSAILA 2022	1.080,53
				52.523,15

b.1) SARRERAK: Indarrean ez dauden kontratuak:



FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
03/03/2022	3D/22	IVAN ASEGINOLAZA AGIRRE	AITZURI PILOTALEKUKO TABERNAREN ALOKAIRUA: MARTXOA 2022	1.694,00

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut

Arritxu Iribar

Hor daukazue dokumentua eta ogasunean pasa direnez, berri emanda geratzen dira,

2.3.- 2021EKO UDALAREN ETA KIROL PATRONATUAREN LIKIDAZIOEN BERRI EMATEA, ETA 2021EKO LIKIDAZIOAREN ONDORENGO EGONKORTASUN TXOSTENAREN BERRI EMATEA.-**399/2022 ALKATE DEKRETUA**

Udal honen 2021eko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen.- Udal honen 2021eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2021-12-31n:		6.855.352,46
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2021-12-31n:		2.800.334,59
Aurrekontuko zordunak :	2.764.315,06	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	36.019,53	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2021-12-31n:		1.199.076,53
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	752.186,05	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	446.355,34	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	-535,14	



4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):	8.456.610,52
5.- Saldo kobragaitzak:	1.973.875,12
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:	0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):	6.482.735,40

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	142.698,01
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-37.644,88
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	2.615.960,36
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	39.502,38
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	2.760.515,88

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	2.974.406,39
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	1.239.430,37
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	4.213.836,76

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

398/2022 ALKATE DEKRETUA

Udal Kirol Patronatu honen 2021eko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat datorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT



Lehena.- Udal Kirol Patronatu honen 2021eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2021-12-31n:		187.293,50
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2021-12-31n:		7.084,00
Aurrekontuko zordunak :	6.202,00	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	882,00	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2021-12-31n:		93.474,58
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	82.298,46	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	11.165,33	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	-10,79	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		100.902,92
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		100.902,92

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	248.893,34
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	10.584,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	0,00
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	259.477,34

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	5.000,00
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	146.224,93
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	151.224,93

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.



Azalpen osoa eman ondoren, 2021eko Udalaren eta Kirol patronatuaren likidazioen berri eman da,

2.4.- IRIZPENA:

2.4.1.- 2022KO ORDENANTZA FISKALAREN 2.GO ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

2022KO APirilAREN 19AN OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2022. URTERAKO ORDENANTZA FISKALEN 2.ALDAKETA ONARTZEKO.

AURREKARIAK

2022ko apirilaren 8ko Ogasun Batzordean 2022. urterako ordenantza fiskalen 2.aldaketaren proposamena aurkezten da. Foru Arau aldaketa azaltzen da eta gai batzuk eztabaidatzen dira.

Irizpen honi 2022ko Ordenantza Fiskalen 2.aldaketaren proposamena eransten zaio.

IRIZPENA

Ondorioz, 2022ko apirilaren 19an, Ogasun Batzordeak aldeko irizpena jaso du hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 3 BILDU

Aurkako botoak:

Abstentzioa: 2 EAJ

Honako PROPOSAMEN hau udalbatzako Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Hasierako onarpena ematea 2022.urterako Ordenantza Fiskalen 2.aldaketari, eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua arabera, udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batetan argitaratu eta GAO n argitaratu hogeita hamar egun balioduneko epean zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaian, 2022ko apirilaren 19an

5.ARTIKULUAREN ALDAKETA PROPOSAMENA:



2022ko Hiri lurren balio gehikuntza arautzen duen ordenantza fiskalak honela dio:

Karga tasa/ Tipo de Gravamen	%15
------------------------------	-----

Proposamena:

URTEAK/AÑOS	KARGA TASA/TIPO DE GRAVAMEN
1-8 urtera	%20
9-16 urtera	%30
17-20 urte edo gehiago	%20

HOBARIAK:

2022ko Hiri lurren balio gehikuntza arautzen duen ordenantza fiskalak honela dio:

Mantentzen da ere kuotaren %50eko hobaria ere, lurren eskualdatzeetan eta jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealen eskualdatze edo eraketatan, betiere kostu gabeko eraketa edo eskualdatzeak badira eta ondorengo ahaideen, adoptatuen, ezkontideen, aurreko ahaideen edo adoptatzaileen alde egiten badira heriotza dela-eta.

Proposamena:

Lurren transmisioan eta jabetza mugatzen duten gozameneko eskubide errealen eskualdatze edo eraketan, heriotzagatik irabaziz egindakoetan, kuota osoaren %95eko hobaria izango dute ezkontideek, izatezko bikoteek, ondorengoek eta adoptatuek, aurreko ahaideak eta adoptatzaileak, baldin eta eskualdatutako ondasuna edo eskubidea oinordeko horietako baten baten ohiko bizilekuari badagokio, bere eranskin eta guzti.

Hobariaren sortzaile eta onuradunak etxebizitza berean errolatuak egon beharko dute eskualdaketa egiteko momentuan.

Gaia, eztabaidatu ondoren bozkatzera pasatzen da, honako emaitza izan delarik

Aldeko botoak: 17 boto (9 EH BILDU, 7 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- 2022.urterako Ordenantza Fiskalen 2. Aldaketa onartzen da eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. Artikuluaren arabera, udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batetan argitaratu eta GAOn argitaratu hogeita hamar egun baliioduneko epean zehar.



2.- Jendaurreko erakusketako epealdian amaitu ondoren, Udal korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da,

3.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

2.5.- PROPOSAMENA:

2.5.1.- 2022KO UDALAREN 7. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

“Kreditu gehigarri bidezko kreditu aldaketaren 2022-KALD-0000007 zenbakidun espedienteak onartzeko proposamena”.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen aipamena egin zen 2022ko apirilaren 19ko Ogasun Batzordean, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena, finantzaketaren ziurtagiria, aurrekontuen egonkortasuneko txostena irakurri dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia, azaldu ondoren,

IRIZPENA

Lehenengoa.- 2022ko apirilaren 28an ospatzen den Osoko Bilkurak honek onartzen/ez onartzen du Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1000.601.161.00.02 2022	JUAN BELMONTEKO UR HORNIDURA	0,00	314.215,91	314.215,91
GUZTIRA		0,00	314.215,91	314.215,91

FINANTZAKETA

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2020	DIRUZAINZTA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	314.215,91



FINANTZAKETA GUZTIRA	314.215,91
-----------------------------	-------------------

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak:
Aurkako botoak:
Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurak onartzen/ez du onartzen, eta ondorioz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera behin behineko onarpena bidaltzea/ez bidaltzea erabakitzen da.

IÑAKI OSTOLAZA: 2.5. PROPOSAMENA, hau da kreditu aldaketa bat eta ogasun batzordean informatu genuen baina ez genuen bigarren batzorde batera ekarri irizpena bozkatzeko eta orduan proposamen bezala ekarri nahi dut, gehien bat epeetan eta lizitatzeko epeetan begiratzen egon ginenean, maiztzeke plenora eramaten baldin zen kreditu aldaketa hau, uztaillaren hasiera arte ez zen egongo ... ezin izango genuen erabili kreditu aldaketa hau eta horrek atzeratu egingo liguke ba... lizitazioa behintzat gure aurreikuspenetan. Horregatik komentatu nizuen batzordean proposamen bezala ekarriko nuela, beraz, lehendabizi hemen eztabaidatzeko edo irizpena bozkatzeko proposamen bezala bozkatuko dugu ea onartzen dugun hau eztabaidatzea edo ez. Proposamena eztabaidatzeko aldeko bozkek? 17 bozka aldekoak, 9 EH BILDU, 7 EAJ-PNV, 1 PSEkoa,

Aldeko botoak: 17 boto (9 EH BILDU, 7 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 2022ko udalaren 7. kreditu aldaketa onartzea, gaia eztabaidatzea erabakitzen da

Beraz, irizpena, o sea, kreditu aldaketa uste dut aipatu dudala zergatik den eta kreditu aldaketa da 314.000€koa eta da Juan Belmonte kalean ur horniduraren aldaketak egiteko, da 2018an egindako proiektu bat egokitu duguna, gehien bat asfaltatzeko arloan, astelehenean komentatuko dugu batzordean baina aldaketa handirik ez zeukan proiektua da eta hori da lehendabizi kreditu aldaketa ekarri duguna, Zerbaiz komentatzeko?

Bueno ba... bozkatu egingo dugu
Aldeko bozkek? 17 bozka aldekoak, 9 EH BILDU, 7 EAJ-PNV, 1 PSEkoa



Aldeko botoak: 17 boto (9 EH BILDU, 7 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 2022ko udalaren 7. kreditu aldaketa onartzen da.-

Eta orain hirugarrengo puntura pasako gara,

3.- TOKIKO GARAPENA, EKONOMIA SUSTAPENA ETA TURISMOA.-

3.1.- PROPOSAMENA:

ONARTZEA BIDEZKO BADA, DEBEGESAREN ETA ZUMAIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA EUSKAL KOSTALDEKO UNESCO GEOPARKEAREN HELMUGETAKO TURISMO JASANGARRITASUNENKO PLANA ZUMAIAN GAUZATZEKO ETA ALKATEARI HITZARMENA FOMALIZATZEKO BEHARREZKOAK DIREN AGIRIAK SINATZEKO GAITASUNA EMATEA.

DEBEGESAREN ETA ZUMAIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, EUSKAL KOSTALDEKO UNESCO GEOPARKEAREN HELMUGETAKO TURISMO JASANGARRITASUNENKO PLANA ZUMAIAN GAUZATZEKO

Eibarren, 2022ko apirilaren ... (e) (a) n.

BILDUTAKOAK

Alde batetik, Iñaki Ostolaza Esnal jauna, ZUMAIA UDALAREN (aurrerantzean, UDALA) izenean eta haren ordezkari. Helbidea FORUEN PLAZA 1, 20750, ZUMAIA; IFK zenbakia P2008700C). Udalbatzako alkate gisa dihardu, eta bere egiten ditu indarrean dauden arauak erakundeari ematen dizkieten legezko ordezkaritza-ahalmenak.

Eta, bestetik, Juan Ángel Balbás Egea jauna, DEBA BEHEKO GARAPEN EKONOMIKORAKO ELKARTEA- SOCIEDAD PARA EL DESARROLLO ECONÓMICO DEL BAJO DEBA, S.A. (aurrerantzean, DEBEGESA) sozietatearen izenean eta haren ordezkari gisa (IFK zenbakia: A20098349; helbidea: Azitain industrialdea, 3 bis, 20600 Eibar, Gipuzkoa). Jarduteko ordezkaritza zuzendari nagusi gisa ematen zaio, 1989ko otsailaren 23an Eibarko notario Carlos del Valle Muñoz-Cabo jaunaren aurrean egiletsitako eskrituratik ondorioztatzen denez (protokolo-zenbakia: 432).

Bertaratuek adierazi dute beren ahalmenak ez zaizkiela ezeztatu, mugatu edo eten, eta ez dituztela aldatu ordezkatatuko erakundeen gaitasun-inguruabarrak.

Agertutako alderdiek, daukaten ordezkaritzan, beren burua behartzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta

ADIERAZTEN DUTE

I. DEBEGESA eskualde garapenerako agentziaren helburua Debabarrena sustatu eta bultzatzeko jarduerak egitea da. Eskualde hori Deba, Eibar, Elgoibar, Sorluze, Mutriku, Mendaro, Ermua eta Mallabia udalerriek osatzen dute. Era berean, sozietateak, bere estatutuen arabera, eskualdeko eremuko proiektuak ere garatu ahal izango ditu, nahiz eta jardueraren bat udalerrri mugakideetan partzialki garatu, baldin eta udalerrri mugakide horiek edo haien mankomunitateek edo garapen-agentziek aldeztu aurretik



eskaera egiten badute, edo, hala badagokio, haiekin aldez aurretik hitzarmena egiten bada.

II. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen (aurrerantzean, SPAJL) 49.b artikuluan ezarritako betekizunaren ondorioetarako soilik, agertutako alderdiak bat datoz honako honetan: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1 artikulua arabera, orain sinatzen duen UDALAK eskumen propioak ditu arlo hauetan: kultura eta kultura-jarduerak antolatu eta sustatzea, erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea (20. atala), tokiko turismoa kudeatu eta sustatzea (22. atala), tokiko garapen ekonomiko eta soziala (25. atala), udal-ondarea kudeatzea eta zaindu eta mantentzea (28. atala).

III. 2022ko martxoaren 29an, Turismoari buruzko Konferentzia Sektorialak tokiko erakundeei eta tokiko garapen-agentziei zuzendutako Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Ezohiko Programako (PSTD) dirulaguntzen ezohiko deialdia arautzen duen dokumentua onartu zuen. Deialdi hori Europako funtsekin finantzatzen da oso-oso, eta funts horiek autonomia-erkidegoei transferitzen zaizkie, eta haiek arduratzen dira funts horiek PSTD laguntzak kudeatzen dituzten erakundeen artean banatzeaz.

IV. DEBEGESAK, udalerrien eta Deban 2009ko azaroaren 16an eraturako Euskal Kostaldeko Geoparkearen Kudeaketarako Elkartearen (GEOGARAPEN) lankidetzarekin, Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Plana egin du. Plan horrek Euskal Kostaldeko Geoparkearen lurralde-eremua hartzen du, eta UNESCOk Munduko Geoparke izendatu du 2015ean, Deba, Mutriku eta Zumaia udalerriak barne hartzen dituen lurralde-eremua.

V. Planak 4 ildo estrategiko ditu:

- a. Turismo-azpiegiturak abian jartzea, egokitzea eta hobetzea.
- b. Mugikortasunaren kudeaketa hobetzea.
- c. Ibilbide interpretatuen sarea.
- d. Geoparkezaleak.

VI. Deialdiaren jarraibideen arabera, ezinezkoa da udalerrri bat beste batzuen ordezkari izatea, nahiz eta udalerrri horiek ados jarri.

VII. Aipatutako jarraibideekin bat etorritik, ezohiko deialdian parte hartu ahal izango dute "hainbat udalerrri biltzen dituzten" eskualdeek edo beste erakunde batzuek. Era berean, autonomia-erkidegoek aukera izango dute udalerrien elkartearen beste formula batzuk PSTD laguntzen kudeatzaile gisa aitortzeko.

VIII. Planaren proposamenetako bi Zumaian baino ez daudela, eta beste batzuk, berriz, zeharkakoak direla.

IX. UDALAK interesa du DEBEGESAK laguntza-eskaera bat aurkez dezan 2022rako PSTD dirulaguntzen ezohiko deialdian. Deialdi horretan Deba eta Mutriku udalerriak ere sartuko lirarteke, eta DEBEGESAK dagozkien lankidetzak-hitzarmenak sinatuko lituzke haiekin.

X. Hitzarmen honek DEBEGESAREN eta UDALAREN arteko lankidetzak zehaztu beharri erantzuten dio, helburu komun bat lortze aldera: dirulaguntza eskatzea eta, hala badagokio, diruz lagundutako proiektu guztiak edo batzuk gauzatzea.

XI. Akordio hau lankidetzak-hitzarmen bat da, SPAJLren 47. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.



XII. Halaber, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 6.2 artikulua lege horretatik kanpo uzten ditu Administrazioak zuzenbide pribatuaren pean dauden pertsona fisiko edo juridikoekin egiten dituen hitzarmenak, baldin eta hitzarmen horien xedea ez badago lege horietan edo administrazio-arau berezietan araututako kontratu tipikoen xedearen barruan. Lankidetzeta-hitzarmen honen xedea ez da sektore publikoko kontratuen berezko prestazioak ematea, eta, beraz, SPKLren aplikazio-eremutik kanpo geratzen da, haren 6. artikulua 2. atalaren arabera.

XIII. Agertutako pertsona juridikoak LANKIDETZA-HITZARMEN hau ematearekin erabat ados daudenez, honako klausula hauen arabera gauzatuko dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA

1.- Hitzarmen honen xedea DEBEGESAren eta UDALAREN arteko lankidetzeta-araubide orokorra ezartzea da, DEBEGESAk finantzaketa eskatzeko, Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Programako dirulaguntzen deialdiaren babesean, eta, era berean, Zumaian garatu beharreko proiektu guztiak edo batzuk gauzatzeko, hitzarmen honetan aipatzen direnak, baldin eta diruz lagunduak badira.

2.- Lankidetzeta Hitzarmen hau garatuko da bertaratutako erakundeek sinatutako gehigarrien arabera eta dokumentu honetan aurreikusitako Jarraipen Batzordearen erabakietan oinarrituta.

3.- Bi alderdi sinatzaileek berariaz adierazten dute lankidetzeta-hitzarmen honen xedea ez dela Udalarari obrak egitea edo zerbitzuak ematea, hark ordaindu beharreko kontraprestazioaren truke; aitzitik, bi erakundeek etorkizunean jardungo dute, baldin eta laguntzak berresten badira, adosten diren proiektuen gauzatzearen sustatzaille gisa, eta horrela, UDALAK, alde batetik, higiezinak eta idatzitako proiektuak jarriko lituzke, eta, bestetik, DEBEGESAk obrak eta zerbitzuak kontratatuko lituzke, Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Ezohiko Programaren babesean lortutako finantzaketa gauzatzeko.

Aurreko hori DEBEGESAk UDALAREN edo sektore publikoko beste erakunde batzuen obra eta zerbitzu horiek gauzatzeko jaso ditzakeen laguntza gehigarrien kalterik gabe ulertzen da.

BIGARRENA.- INDARRALDIA ETA IRAUPENA

1.- Hitzarmen honen indarraldia UDALAREN osoko bilkurak hitzarmena berrestearen baldintzapean dago (baldintza etengarria). Berresten ez den bitartean, hitzarmen honek ez du ondorioz izango.

2.- Diruz lagun daitezkeen proiektuen hasierako gehieneko iraupena HIRU (3) urtekoa bada ere, proiektu horiek atzeratu egin daitezke administrazio-izapideen zailtasunengatik, eskumen-konplexutasunengatik edo DEBEGESAri edo UDALARI ez dagozkion beste arrazoi batzuegatik; bi alderdiek berariaz hitzartzen dute Hitzarmen honek LAU (4) urteko iraupena izango duela, indarrean sartzen den egunetik zenbatzen hasita, baina erakunde sinatzaileek LAU (4) urteko luzapena adostu ahal izango dute, SPAJLren 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- UDALAREN BETEBEHAR NAGUSIAK

1.- UDALAK betebehar hauek izango ditu:



a) DEBEGESAk Europako Next Generation-EU funtsetatik Zumaian proiektatutak jarduketetarako jaso lezakeen dirulaguntzaren zenbatekoa jakin ondoren, Planaren Jarraipen Batzordeak zehaztuko du zer proiektu gauzatu behar den edo diren, bai eta hura gauzatzeko eta kofinantzatzeko araubidea ere, beharrezkoa izanez gero.

b) Proiektua eta, hala badagokio, baterako finantzaketa gauzatzeko baldintzak hitzarmen honen eranskin gisa gehituko dira. Gehigarri hori irizpide eta eduki hauetan oinarrituko da:

- Eranskinean, bi erakundeek proiektuen sustatzailekide gisa dituzten betebeharrak zehaztuko dira, bai eta jarraitu beharreko irizpideak ere, proiektuak gauzatzean gainkostuak badaude.
- DEBEGESAk plantilla indartu eta kanpoko laguntza tekniko kontratatu beharko duenez, aipatutako gehigarrian DEBEGESAr ordaindu beharreko kostu horien baldintzak zehaztuko dira.
- DEBEGESAk ez du funts ekonomiko propiorik jarriko proiektuak gauzatzeko.

2.- UDALAK honako ekarpen hauek egin beharko ditu DEBEGESAk Plana gauzatzeko:

a) MOILABERRI eta ALGORRI gauzatzeko proiektuak, planaren aurrekontuaren eta bi eraikinetan egin beharreko ekintzen oinarri izango direnak.

b) Jardueren, kontratuen eta baimenen programazio orokorra.

c) Administrazio-klausula partikularren agirien zirriborroak, baldintza teknikoen agiriak eta antzeko beste edozein dokumentu, DEBEGESAk udal-ondasunetan egin beharreko obrak lizitatzeko.

Aurreko dokumentazio eta informazio guztia Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bidez aztertuko da, proiektu eta programazio horiek behar bezala gauzatzeko zehaztu, aldatu edo eguneratzeko.

3.- UDALAK, halaber, DEBEGESA eratuko duen batzorde teknikoan pertsona bat izendatzeko betebeharra hartzen du bere gain, obrak, ondasunak eta zerbitzuak kontratatuzko deitutako lehiaketetan jasotako eskaintza teknikoen balio-judizioak egiteko, SPKLren arabera. Era berean, DEBEGESAk bere udal-eremuarekin zerikusia duten obrak eta zerbitzuak kontratatuzko egiten dituen pleguen proiektuen berri emango du UDALAK.

4.- UDALAK ahalik eta azkarren lagundu beharko du hitzarmen honen xede diren proiektuak gauzatzeko egokiak diren udal-baimen, -txosten edo -lizentziak izapidetzen.

5.- UDALAK bere gain hartzen du ondare-erantzukizuneko aseguru bat izateko betebeharra, bere eraikinen edo instalazioen egoera txarra dela-eta DEBEGESAr edo hirugarrenei, erruz edo zabarkeriaz, kalterik eraginez gero.

LAUGARRENA.- DEBEGESAREN BETEBEHAR NAGUSIAK

1.- DEBEGESAk dirulaguntzak eskatu beharko ditu Zumaian turismo-azpiegitura hauek abian jartzeko, egokitzeko edo hobetzeko:



Zumaia Udala

2022IAKU0004-A22/3793

a) Moilaberriko Informazio eta Turismo Bulegoa. Jarduketa informazio- eta turismo-bulegoa hartzeko planteatzen den eraikinaren birgaitze osoan edo partzalean oinarritzen da, Zumaiaiko industria-ondarerako gune bat eta Zumaiaiko natura- eta geologia-ondarearen aurkezpen bat izango ditu, Algorri Interpretazio Zentrorako anezka- edo bideratze-lanak egingo dituen (Erreferentzia: Udalak esku hartzeko oinarritzko proiektua/memoria, 2022ko martxoaren 23koa).

b) Fyscharen Interpretazio Zentroa. Jarduketaren ardatza eraikinaren birgaitze integrala da, bai eta Algorriko egungo Interpretazio Zentroaren edukiak eguneratzea ere, Zumaiaiko naturaguneetan zentratuta (Erreferentzia: Algorriko oinarritzko birgaitze-proiektua, 2022ko otsailaren 18koa, eta 2015eko aurreproiektu museografikoa, Zumaiaiko Udalak emanak).

2.- DEBEGESAK, halaber, dirulaguntzak eskatu beharko ditu ibilgailuen trafikoa kudeatzeko eta monitorizatzeko sistema adimenduna abian jartzeko, erabiltzaileei eta erakunde publikoei informazioa emateko. Deba, Mutriku eta Zumaiaiko udalerrietan aldi berean ezarriko da sistema.

3.- DEBEGESA izango da, PSTD laguntzen kudeatzaile gisa, dirulaguntza publikoei buruzko legeriaren arabera erakunde onuradunei dagozkien betebeharrak bere gain hartuko dituen erakundea.

4.- DEBEGESAK dagokion erantzukizun zibileko aseguruia eduki beharko du proiektuak gauzatzean UDALARI edo hirugarrenei, erruz edo zabarkeriaz, kalterik eraginez gero.

BOSGARRENA.- UDAL-HIGIEZINETAN OBRAK EGITEA

1.- DEBEGESAK debekatuta du UDALAK onartutako exekuzio-proiektuan jasota ez dauden udal-higiezinetan obrak egitea, UDALAK aldeztatik idatzizko baimena eman ez badu.

2.- DEBEGESAK, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62.1 artikularen babesean, UDALA izendatu beharko du kontratuaren arduradun gisa, hargatik eragotzi gabe obraren arduradun gisa zuzendaritza fakultatiboari dagozkion ahalmenak, zeina UDALAK ere izenda baitezake.

3.- DEBEGESAK UDALARI entregatu beharko dizkio, kontserbazio-egoera onean eta erabiltzeko moduan, hitzarmen honen arabera egindako obrak. DEBEGESARI baimendutako obrak dagokion udal-higiezinaren onurarako geratuko dira, eta ez dute inolako itzulketarako eskubiderik izango 4.- Udalak sustatzailekide izaera hartzen du bere gain, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Udal Ordenantzaren ondorioetarako.

5.- Obrak hasi eta amaitu ondoren, harrera-akta formal bat egingo da, bi aldeek sinatuta.

6.- DEBEGESAK obrak egin ahal izateko behar dituen baimenak eskatu beharko dizkie UDALAK udal-higiezinak okupatzen dituzten pertsona edo erakundeei, eta DEBEGESAK ez du inolako erantzukizunik izango higiezin horiek okupatzeagatik eta horien erabilera arruntean izan ditzakeen ondorioengatik.

SEIGARRENA.- INFORMATZEKO BETEBEHARRA. DATUEN BABESA

1.- Alderdiak behartuta daude hitzarmen hau sinatu ondoren gerta daitekeen eta lankidetzaren hitzarmen honetan lortu nahi diren helburuekin zerikusia duen edozein gertakari edo gorabeherari buruzko informazioa ematera.



2.- Sinatzen duten alderdiek konpromisoa hartzen dute hitzarmen honen aplikazio-esparruan eskuragarri dituzten edo lagatzen zaizkien datu pertsonalak tratatzeko, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Europako Parlamentuaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak (EB), pertsona fisikoen zirkulazio libreari eta datu pertsonalen tratamenduari buruzko araudia garatzen duenak, ezarritakoaren arabera.

ZAZPIGARRENA.- JARRAIPEN-BATZORDEAK

1.- Lankidetzaren Hitzarmen hau behar bezala betetzen dela bermatzeko, alderdi sinatzaileek Jarraipen Batzorde bat abian jartzea adostu dute. Batzorde horren osatura honako hau izango da:

- a) Udalak izendatutako bi pertsona, profil teknikoko bat eta profil politikoko beste bat.
- b) DEBEGESAk izendatutako bi pertsona, profil teknikoak dutenak.

Gainera, GEOGARAPENen ordezkari batek ere parte hartu ahal izango du, hitzarekin baina botorik gabe.

2.- Hauek izango dira Jarraipen Batzordearen eginkizunak:

- a) Jarraipen Batzordearen funtzionamendu-araubidea onartzea.
- b) Exekutatu beharreko proiektuak definitzea. Batzordeak, DEBEGESAren hasierako proposamenari jarraiki, gauzatu beharreko proiektuak proposatuko ditu. Proiektu horiek, azkenean, Udalak onartuko ditu, eta DEBEGESAk onartuko ditu, sustatzailekide gisa.
- c) Hitzarmen honen ondorioz alderdiek hartutako konpromisoak definitzea.
- d) DEBEGESAk egin beharreko kontratazioei buruzko informazioa partekatzea.
- e) DEBEGESAren lizitazioen administrazio-klausulen eta baldintza teknikoaren agiriaren proiektuei buruzko txostenak egitea.
- f) Proiektuen aurrekontu-exekuzioaren eta hasieran aurreikusitako programazioaren aldizkako jarraipena egitea.
- g) Lankidetzaren hitzarmenaren edukiarekin zerikusia duten hainbat alderdiri buruzko proposamenak egitea.
- h) Hitzarmena behar bezala betetzeko jarduerak koordinatzea.
- i) Batzordeko kideen informazioa jasotzea.
- j) Proiektuak behar bezala exekutatzeko edo aldatzeko erabakiak proposatzea.
- k) Antzeko beste edozein eginkizun.

3.- Jarraipen Batzordea Hitzarmena sinatu duten alderdietako bakoitzak egokitzat jotzen duen guztietan bilduko da.

4.- Hitzarmena sinatzen duten bi alderdien arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzorde horrez gain, Planaren Jarraipen Batzorde bat egongo da, eta bertan DEBEGESA, GEOGARAPEN eta hiru udalerrietako (Deba, Mutriku eta Zumaia) ordezkariak egongo dira.

ZORTZIGARRENA.- NOBAZIOA ETA ALDAKETAK



1.- Lankidetzeta Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek aitortutako eskubideak eta betebeharrak ezin izango zaizkie hirugarren erakundeei laga, alokatu, gozatu, eskualdatu eta abar, hitzarmena sinatu duten beste alderdien baimenik gabe.

2.- Hitzarmen honen aldaketa bat bera ere ez da baliozkoa izango, alderdi sinatzaile guztiek sinatu ezean.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMEN HAU EZ BETETZEA

1.- Hitzarmen hau sinatu duten alderdietako batek bere gain hartutako betebeharren bat betetzen ez badu, bete duten alderdiek hori betetzea exijitzeko ahalmena izango dute edo, bestela, Hitzarmena suntsiarazteko ahalmena.

2.- Nolanahi ere, ez-betetzea Jarraipen Batzordeak aztertu beharko du lehenik eta behin.

3.- Ez-betetzereen bat gertatuz gero, alderdi bakoitzak betebeharra hartzen du, alderdi betetzaileari eragindako kalteak konpontzeko.

HAMARGARRENA.- ALDERDIEN ARTEKO KOMUNIKAZIOAK

1.- Aldeek hitzarmena betearazi bitartean elkarri egiten dizkioten komunikazioak posta elektronikoz egin ahal izango dira, eta ondoren zerrendatzen diren helbide elektronikoetara bidali beharko dira:

ZUMAIA UDALA:

... .. @zumaia.eus

DEBEGESA

..... @debegesa.eus

2.- Alderdi sinatzaileek helbide elektroniko horietan egindako edozein aldaketa posta elektronikoz jakinarazi beharko diete gainerako alderdi sinatzaileei.

HAMAİKAGARRENA.- EZTABAIDAK EBAZTEA

Hitzarmen honen interpretazioak, aldaketak, ondorioek eta abarrek sor ditzaketen auziak Jarraipen Batzordean ebatziko dira lehenik eta behin. Akordiorik ez badago, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena edozein eztabaidarako.

HAMABIGARRENA.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen hau administratiboa da, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, lege-xedapen horren aplikazio-eremutik kanpo geratzen da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

Eta ados daudela adierazteko, dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako egunean eta lekuan.

Proposamena tratatzea edo ez bozkatu egiten da



Zumaiako Udala

2022IAKU0004-A22/3793

Aldeko botoak: 17 boto (9 EH BILDU, 7 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: DEBEGESAren eta ZUMAIAKO UDALAREN arteko lankidetzaren hitzarmena eztabaidatzea erabakitzen da

Beraz, azalpenak entzun eta eman ondoren, bozkatu egiten da

Aldeko botoak: 17 boto (9 EH BILDU, 7 EAJ- PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- DEBEGESAren eta ZUMAIAKO UDALAREN arteko lankidetzaren hitzarmena onartzen da, Euskal kostaldeko unesco Geoparkearen helmugetako turismo jasangarritasuneko plana zumaian gauzatzeko eta alkateari hitzarmena formalizatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko gaitasuna ematen zaio.

4.- PROPOSAMENA.-

4.1. ZUMAIAKO UDALAREN IRUZURRAREN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.-

ZUMAIAKO UDALAREN IRUZURRAREN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2020ko uztailaren 21ean, Europako Kontseiluak "NextGeneration EU" (EBko hurrengo belaunaldia) izeneko aparteko tresna bat adostu zuen, 750.000 milioi eurokoa, aldi baterako, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko, estatu kideekin koordinatutako erantzun europarra bermatuz.

NextGeneration EUren barruan bolumen handieneko tresnetako bat Berreskuratze eta Erresilientziarako Mekanismoa da (BEM), 672.500 milioi eurokoa. BEMen helburuak garatzeko funtsezko atal gisa, irailaren 30ean BOEn irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua argitaratu zen. Horren bidez, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (BEEP) egituratu da. Plan horren arabera, administrazio publikoek hainbat neurri hartu behar dituzte, besteak beste, kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitzea, haien konfigurazioarekin batera. Horrez gain, planean aurreikusitako neurrien barruan (eraldaketak/inbertsioak) dauden proiektuak eta azpi-proiektuak definitu, planifikatu, gauzatu, jarraitu eta kontrolatzera bideratutako kudeaketa zehaztu behar dute.

Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Araudiaren 22. artikulua zenbait betebeharrak ezartzen dizkio Espainiako Estatuari, EBren finantza-interesak babeste aldera. Horretarako, iruzurraren aurkako



neurrien plan bat egituratzeko betebeharra ezartzen dio, EBren finantza-interesak babesteko helburuarekin.

Betebehar hori erdieste aldera, Aginduaren 6. artikuluan ("iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihesteko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea"), BEEP neurriak betearazten parte hartzen duten erakunde erabakitzaile edo betearazleguztiek iruzurraren Aurkako Neurrien Plan bat eduki beharko dute. Horren helburua da bermatzea eta aitortzea, dagokion jarduera-eremuan, dagozkien funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokienez.

"Iruzur" terminoak engainua erabiltzea esan nahi du, irabazi pertsonalak lortzeko erakunde publiko bati lotutako pertsonarentzat edo hirugarren batentzat, edo galerak beste pertsona batentzat. "Ustelkeria" irabazi pertsonalak lortzeko botere-abusua da. "Interes-gatazka" dago pertsona baten eginkizunak modu inpartzialean eta objektiboan betetzeko arriskuan dagoenean, familiarekin, kide-tasun politiko edo nazionalekin, interes ekonomikoekin edo EBko funts-eskatzaile batekin adibidez, partekatutako beste edozein interes-motarekin zerikusia duten arrazoiengatik. Iruzurrak, ustelkeriak eta interes-gatazkako kasuen kudeaketa txarrak ondorio finantzarioak izateaz gain, kalte larria egiten diote baliabide publikoei eta, beraz, EBko funtsak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzeko ardura duen erakundearen ospeari.

Zumaia Udalak iruzurraren eta ustelkeriaren aurka dagoela adierazi du erabat, eta kalitate juridiko, etiko eta moral handia mantentzeko konpromisoa hartu du, bai eta osotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta zintzotasun printzipioen arabera jokatzeko ere. Gainera, bere eginkizunak betetzean iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko konpromisoa berretsi du, eta interes-gatazkak goiz eta behar bezala kudeatzeko asmoa adierazi du.

Zumaia Udalak iruzurraren aurkako politika bat onartu du, edozein iruzur-jardueratarako disuasio-efektua izango duen betetze-kultura sustatzeko, eta, horrela, jarduera horiek modu proportzionatuan, eraginkorrean, egokian eta denboran zehar egokituz prebenitu, detektatu, zuzendu eta jazarri ahal izateko.

Horrez gain, Zumaia Udalak konpromisoa hartzen du kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredu bat ezartzeko, EBko funtsak lortzeko eta bideratzeko espedienteen estandar etiko onenekin bat datorren izapidetze eraginkorra ziurtatzeko, BEEP planean aurreikusitako helburuak bete ditzan.

Zehazki, konpromisoa hartzen du, besteak beste, epe horren barruan jarduketa hauek egiteko:

1. Arriskuen analisia eta ebaluazioa.
2. Kode Etikoa idaztea.
3. Kanal etikoaren protokoloa idaztea.
4. Interes-gatazkak prebenitzeko politika idaztea.
5. Eragozpenen eta opariaren politika idaztea.
6. Iruzurraren prebentzioari buruzko prestakuntza eta kontzientziazioa.
7. Iruzurra Kontrolatzeko Organoa izendatzea.

Zumaia Udalak barneko jakinarazpen-kanalen bidez antzeman daitezkeen irregulartasunak edo iruzurraren eta ustelkeriaren susmoak salatuko ditu, eta iruzurraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin eta gainerako agintari eta erakunde



Zumaiako Udala

publikoekin, Estatuko segurtasun-kidegoekin, autonomikoekin edo foralekin lankidetzan arituko da une oro.

2022IAKU0004-A22/3793

Gaia, eztabaidatzea proposatzen da eta bozkatzen da

Aldeko botoak: 17 boto (9 EH BILDU, 7 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: ZUMAIAKO UDALAREN iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala eztabaidatzea erabakitzen da

Gaia landu eta gero bozka ematen da,

Aldeko botoak: 17 boto (9 EH BILDU, 7 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: ZUMAIAKO udalaren iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala onartzen da.-

5.- ESKARI – GALDERAK

Puntu honetan ez da gairik azaldu, beraz, bukatutzat ematen da

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta berrogei minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria



Zumaiako Udala

2022IAKU0004-A22/3793